

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

15. astea (2024ko apirilaren 8tik 15era)

Gripe-birusaren zirkulazioa, COVID-19aren intzidentzia eta bronkiolitisaren diagnostikoak balore baxu eta egonkorretan mantentzen dira.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 253,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (250,2/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, azken asteetan nahiko egonkor mantendu diren gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek pixka bat gora egin dute, baina 12. asteko (jai egunik gabeko azken astea) balioen azpitik mantendu da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 19 lagin jagoleen % 26,3 baieztatu da, SARS-CoV-2rik, gripe-birusik ala ABSik detektatu ez delarik, baina bai 2 errinobirus eta 2 metapneumobirus.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 10,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,1/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 15 SARS-CoV-2, 4 gripe-birus eta 2 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 253,6 kasukoa izan da (250,2/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 236,2/100.000 izan da Araban, 260,3/100.000 Bizkaian eta 251,0/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 920,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 64 urtetik gorakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 291,8 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 eta 64 urte arteko adin-taldeetan.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasak aurreko asteko antzeko balioetan mantentzen dira.


AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 15. astea	Tasa 14. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	256,8	233,6	1,10 (0,99-1,22)
Arabar Errioxako ESI	426,0	502,7	0,85 (0,58-1,23)
Barakaldo-Sestaoko ESI	248,0	223,3	1,11 (0,95-1,31)
Barrualde-Galdakaoko ESI	257,4	262,6	0,98 (0,89-1,08)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	290,3	295,0	0,98 (0,90-1,07)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	270,7	245,8	1,10 (0,96-1,26)
Uribeko ESI	197,2	186,2	1,06 (0,92-1,21)
Bidasoako ESI	236,2	251,8	0,94 (0,77-1,15)
Debararrenako ESI	277,6	308,3	0,90 (0,74-1,09)
Debagoienako ESI	217,3	192,3	1,13 (0,89-1,44)
Donostialdeako ESI	227,7	241,8	0,94 (0,86-1,04)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	299,9	246,6	1,22 (1,02-1,44)
Tolosaldeako ESI	259,8	303,4	0,85 (0,70-1,05)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 1,4 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (1,3/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 204,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (173,3/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 19 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 26,3 baieztatu dira. Ez da SARS-CoV-2rik, gripe-birusik ala ABSik antzeman, baina bai 2 errinobirus eta 2 metapneumobirus.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Aste honetan jasotako lagin urriek lortutako positibotasunak zuhurtziaz interpretatzera behartzen dute. Hiru arnas-birus nagusien, SARS-CoV-2, gripe-birusa eta ABS, positibotasunak nahiko egonkor daude % 10etik beherako balioetan (% 0,0 hiru kasuetan aste honetan). Errinobirusaren eta metapneumobirusarena positibotasuna % 10,5ekoa izan da (% 22,2 eta % 16,7 aurreko astean, hurrenez hurren).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	15. astea		14. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	242	17,3
SARS-CoV-2	0	0,0	0	0,0	74	5,3
ABS	0	0,0	0	0,0	91	6,5
Metaneumobirus	3	16,7	3	16,7	91	6,5
Parainfluenza	2	11,1	2	11,1	37	2,6
Adenobirus	0	0,0	0	0,0	33	2,4
Errinobirus	4	22,2	4	22,2	273	19,5
Urtaroko CoV	1	5,6	1	5,6	84	6,0

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 10,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,1/100.000 aurreko astean), 9,5/100.000 emakumeetan eta 10,5/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 29,2 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 16,7 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 urtetik beherakoetan eta 45-64 urteko adin-taldean.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Hiru arnas birus nagusien positibotasuna % 10aren azpitik mantentzen da modu egonkorrean, aste honetan gripe-birusaren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 0,6 aurreko astean), SARS-CoV-2arena % 2,0koa (% 5,7 aurreko astean) eta ABSrena % 0,8koa (% 0,6 aurreko astean). Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuenak metapneumobirusarena (% 9,1) eta parainfluenzarena (% 8,0) izan dira.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	15. astea		14. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	150	2,0	192	5,7	7558	8,7
Influenza	136	0,0	178	0,6	7096	17,0
ABS	121	0,8	157	0,6	5964	13,3

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoen arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 15 SARS-CoV-2, 4 gripe-birus eta 2 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 4 gripe-birusetatik, 2 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, A(H3) bat eta beste bat A(H1)pdm09. 2023/40 astetik 6096 detekzio erregistratu dira, 6071 (% 99,6) A motakoak eta 25 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1863 birusetatik, 440 (% 23,6) A(H3) eta 1423 (% 76,4) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, martxoan, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboan % 23,6 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak eta JN.1 leinukoak izan dira.

Asteako SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 15. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 1,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (1,8/100.000 aurreko astean); 1,7 gizonetan eta 1,1 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 9 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (12 ospitaleratu aurreko astean), 6 gizon eta 3 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 77,8 60 urtetik gorakoa izan da.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 15. astean, 2 COVID-19 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (aurreko asteko berdinak). Kasuak izan dituen zentro soziosanitario kopurua ere 2 izan da.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko apirilaren 17an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**